

Trajedia

Igor Estankona

"Hamlet"
William Shakespeare
euskaratzailea: Juan Garzia Garmendia
Ibaizabal, 2002

Gorteko altzarietan eta mahaian egoki esertzeko moduan soilik igartzen zen errenazimendua Shakespeare jaio zenean. Ingelesa ez zuen ia inork ezagutzen. Baina Ingalaterra "barbaroa" loratzen hasia zen. Haren nagusitasunean ere somatu zen, XX. mendera arte, nahaste hori: basakeriaren eta gentlemenen inperioa. Idazlea 1564ko apirilak 23an jaio zela uste da, 24an bataiatu baitzuten. Batzuek diote harakin ibili zela eta familiak gorriak ikusi zituela, beste batzuek diote eskolan maisu izan zela. Ez dakigu aztoareekin ehizan ibiltzen zen edo ez eta herriko bake-epailearen lurretan uso bila zebilelako bota ote zuten herritik. Londonera 1588an heldu zela dioenik badago eta dudan jartzen duenik ere bai.

Gerokoa ezaguna da, baina. Arrakasta, txaloak eta halako zapore gazi gozo bat, garaiko ikusle eta irakurleek somatu ezin zutena. Denborarekin asko idatzi eta hausnartu da Shakespearearen aberastasunaren inguruan. Batzuetan liburua hartu eta irakurtzea izaten da onena, obren gaineko teoriak kutsatu bako irakurketa aberasgarrian murgilduz.

Orain Juan Gartzia "Hamlet" itzuli egin digu eta Ibaizabalek argitaratu: Literatura Unibertsala saileko ehungarren zenbaki borobila are gehiago borobiltzeko titulu ezin hobea. Liburua esku artean hartzean sentipen arraro bat izan nuen, paperak iraun dezakeena baino gehiago iraungo duten liburuek sortzen dutena. Era askotako tragediak daude. Batzuk beste batzuk baino agerikoagoak dira, baina William Shakespearearen "Hamlet" tragedia guztien ama da, tragedia guztien ispilua orain dela lau mendetik hona.

Erdi aroko teatroa behin betiko gairatu zuen Stratford-upon-Avongoak. Garaiko antzerki-lanen gehiegikeriak alde batera utzi eta kontzentrazio eta leuntasun dramatikoa landu zituen. Hamleten zorakeria sakona ere, itxura batean, neurtua da. Bere jokaerak iritzi desberdinak sorrarazten ditu pertsonaien euren artean: Maitasuna da? Aitarengandikaren oinazea da? Mendekuaren itsutasuna da? Seguruenik hiruretako batek ere ez du erantzun osoa eskaintzen. Mendekua behar bada ez da gai nagusia. Pertsonen gaineko gogoeta da "Hamlet". Ohorea eta makurkeriaren artean zeinen marra lausoa dagoen erakusten digu. Mila interpretazio desberdin izan ditzake. Irakurleak jakingo du berea ematen.

Deia, 2003-01-14